



Orioko Herri Ikastolaren Hizkuntz Proiektua

Dokumentu laburra

2009 – 2010 ikasturtea

1.- Ikastolaren ibilbidea eta egoera soziolinguistikoa

1.1. IKASTOLAREN TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA.

Orioko Herri Ikastolako familia tipologiari erreparatuz, gehiengo handiena elebidun osoa da, hau da, aita eta ama euskaldunak dira; baina azken neurketatik hona horien portzentajeak beherantz egin du nabarmenki, %7,27: duela lau urte familia elebidun osoak %76,2 ziren, gaur egun %68,93. Aldiz, familia erdaldunen eta mistoen kopuruak gorantz egin du: erdaldunen kasuan % 2,19, une honetan %8,79 dira; eta mixtoen kasuan %5,06 igo da, ikastolako familien %22,26 izanik

1.2. ORIOKO HERRI IKASTOLA ETA HIZKUNTZAK; BILAKAERA HISTORIKOA.

1971: Ikastolaren sorrera: eukaraz. D eredu. Gaztelania OHO 3. mailatik eta frantsesa/ingelesa OHO 6. mailailatik.

1996-1997: Eleanitz-English proiektua

- lau urtetik aurrera ingelesa ikasten hasten dira eta DBHko azken bi ikasturteetan Gizarte Zientzien arloa ingelesez.
- Gaztelaniaren ikaskuntza LHko 1. mailara aurreratzen da. 1990eko hamarkadan martxan jarritako

2004-2005: Euskaraz-Bizi Proiektua.

2009-2010 Orioko Herri Ikastolaren Hizkuntza Proiektua garatzen hasi.

2.- Hizkuntza Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak

2.1. HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa da.

2.2 HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

2.2.1. Eremu pedagogikoa

- **Gela barruko eremuak** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan.

Kudeaketa pedagogikoa:, hizkuntzen curriculum bateratua du helburu.

Interakzio didaktikoa: ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorra egitea du helburu.

Lan-ildo horiek aurrera eramateko irakasleen beharrezko **prestakuntza** eta **baliabideak** jasotzen dira

- **Gelaz kanpoko eremuak** irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku.

2.2.2. Eremu instituzionala

Ikastolako hizkuntz politikari dagokiona da.

- **Eraketa eta barne-komunikazioaren** testuingurua ahalik eta euskaldunena egiteko hizkuntz kudeaketari dagozkion erabaki nagusiak biltzen dira.
- **Kanpo-harremanen** atalean, euskara sustatzeko, inguruko gizartearekin elkarlanean sortu beharreko loturak eta bultzatu beharreko konpromisoak.

2. Taula. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuak

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK					
HEZKUNTZA-PROIEKTUA					
Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza					
EREMU PEDAGOGIKOA			EREMU INSTITUZIONALA		
GELA BARRUKOA		GELAZ KANPOKOA	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA		KANPO-HARREMANAK
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA	(jolasaldiak, kirol ekintzak, jantokia, garraioa, irteerak eta abar)	IKASTETXEA	FAMILIA	(beste ikastetxeak, gizarte-elkartak, udalak eta herri-erakundeak, hornitzaileak)
1. HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA o Hizkuntza arloaren kudeaketa o Helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak 2. BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK o Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak (hizkuntzen tratsara instrumentale). 3. PROIEKTU OSAGARRIAK o Zehar-lerroen hizkuntz tratsara o Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza o Irakaslearen hizkuntz eredu eta hizkuntzarekiko jarrera o Irakaslearen arteko hizkuntz erabilera 2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA o Komunikazio-egoera esanguratsuek o Taldekatze motak eta irizpideak	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Hezitzaileen hizkuntz erabilera o Hezitzaile-ikaskeraren arteko hizkuntz erabilera o Irakaslearen arteko hizkuntz erabilera 2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA o Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak 3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Jardueraren metodologia o Hizkuntzekiko jarrerak 4. BALIABIDEAK o Gune eta zerbitzu-erakunde baliabideen hizkuntz tratsara	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Gobernu, administrazio eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta tratsara o Langileen hizkuntz profila o Hizkuntzen tratsa erari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak 2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak 3. BALIABIDEAK o Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz tratsara o IKT euskarriren hizkuntz tratsara. o Ikastolako espazioen hizkuntz tratsara	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Harremanetarako hizkuntz irizpideak 2. ERABILERA EREMIEN SUSTAPENA o Harreman-sareak indartzea o Euskal kultur ekintzak bultzatzea o Euskarazko ekintzak bultzatzea.	
4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Arloko metodologia eta didaktika o Hizkuntzekiko jarrerak 5. BALIABIDEAK o Arlo bakoitzeko ikasmaterialek o Espazioen banaketa eta hizkuntz tratsara o Informazio iturrien eta beste baliabideen hizkuntza					

2.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

- **Koherentzia.** Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko
- **Egokitasuna.** Gure testuinguru sozio-ekonomiko-linguistiko eta kulturalari.
- **Legezketasuna.** Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa aintzat hartu du.
- **Integrala eta parte-hartzailea.** Jasotako erabakiek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometitzen dituzte.
- **Dinamikoa eta bizia.** Urteko plangintzen ebaluazioen ostean, urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasotzen.

2.4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KOKAPENA

3. irudia. Hizkuntz Proiektuaren kokapena




3. Hizkuntz Proiektuaren ikuspegia eta helburuak

3.1. HIZKUNTZEKIKO HELBURU OROKORRAK

- Euskal hiztunak hezi nahi ditu, etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.
- Ardatza euskara duela, pertsona euskaldun eleaniztunak hezi nahi ditu.
- Euskaraz gauzatu nahi du bere hezkuntza-komunitatearen barne-bizitza.
- Euskararen normalizazio-prozesuan eragile izan nahi du txertatuta dagoen komunitatean.

3.2. HIZKUNTZEKIKO ERREFERENTZIAZKO LORPEN-MAILAK

4. irudia. Hizkuntzen lorpen maila



2. taula. Orioko Herri Ikastolako DBH amaierarako hizkuntzen lorpen-mailak

HIZKUNTZAK	LORPEN-MAILAK
Euskara	B2
Gaztelania	B2
Ingelesa	B1

4. Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoa

Oinarrizko printzipioak eta irizpideak:

4.1. HIZKUNTZ ETA KULTUR POLITIKAREN OINARRIAK

- Eskolaren zeregina euskara indarberritzea
- Hizkuntza eta kultur aniztasunaren integrazio barne-hartzailea

4.2. HEZKUNTZAREN IKUSPEGIA

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean proposamena ikasleak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadi-kidea) eraginkortasunez jarduteko trebatzea da. Bost konpetentzia orokor izango ditu ardatz gisa:

- Pentsatzen eta ikasten ikastea
- Komunikatzen ikastea
- Norbera izaten ikastea

- Elkarrekin bizitzen ikastea
- Egiten eta ekiten ikastea

Perspektiba berri horrek lehen planora dakar hizkuntzaren trataera:

- Hizkuntza da nortasunaren garapenerako tresna nagusia.
- Hizkuntza da pentsamendua egituratzeko eta errealitatea barneratzeko tresna nagusia.
- Hizkuntza da gizartean parte hartzeko eta elkarrekin bizitzeko tresna nagusia.

4.3. HIZKUNTZAREN ETA HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAREN IKUSPEGIA

4.3.1. Hizkuntzaren ikuspegia

Testu-generoen ulermen eta ekoizpenean ardaztutako metodologia hobetsi du.

4.3.2. Euskaran ardaztutako hezkuntza eleaniztuna

- **Euskara:** eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusia.
- **Gaztelania:** bigarren hizkuntza, bereziki ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira.
 - **Ingelesa:** 3.hizkuntza, gizartean hartu duen *lingua franca* papera ikusita
 - **Frantsesa,** mugaz bestaldeko komunitatearekin harremanetan jartzeko helburuarekin.

4.3.3. Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra

Orioko Herri Ikastolaren hizkuntzekiko xedea ikasleen komunikazio-konpetentzia garatzea da, Horrenbestez, ikastolaren komunikazio-testuinguruko eremu guztietan eragin behar da: gela barruan, gelaz kanpokoan eta eremu instituzionalean.

Gela barruan hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek. Irakasle bakoitzak bere arloko berezko hizkuntz beharrei erreparatu beharko, arloari dagozkion operazio kognitibo-linguistikoei, testu-genero ohikoenei, eta horiei arrakastaz aurre egiteko ikasleak erabili behar dituen hizkuntz gaitasun eta prozedura nagusiei.

Era berean, gela barruko interakzioa hizkuntzaren jabeak eta garapenerako esparrua izango da. Ezagutzaren eraikuntza sozialak eskatzen du ideiak eta ezagutzak besteekin alderatzea, eta besteekin batera garatzea. Ikasleek besteekin elkarlana egin behar dute ezagutza berria eraikitzeko, norberaren ideiak eta ezagutzak azalduz, besteekin erkatuz, eta argudiatuz.

Eskolaz kanpoko eta aisialdiko egoeretan ere modu hausnartuan jokatu behar da, pertsonarteko harreman ez-formalen hizkuntz ereduak eta konpetentziak garatu ahal izateko.

Eeremu instituzionalak egoera guztietarako biltzen dituen hizkuntz irizpideak finkatu behar dira, ikastolako bizitzan sortzen diren barne- zein kanpo-harreman guztiak euskaraz gerta daitezzen.

4.3.3.1. Hizkuntza arloaren trataera

Hizkuntzak eta Literatura ikas arloaren curriculumaren oinarria, hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da konpetentzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

• **Hizkuntzen ikuspegi bateratua: curriculum integratua**

Alde horretatik, curriculum proposamen integratu eta bakar batean bildu behar da hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza.

Ondorioz, arloaren konpetentzia nagusien eta blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat.



- **Metodologiaren ikuspegia**

Ikuspegi diskurtsiboan oinarritzen den metodologiaren hautua egitea eskatzen du. Horren arabera, hitz egitea eta idaztea komunikazio-testuinguruaren baitan, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak eraikitzea da.

- Komunikazio-egoera esanguratsuak ahalbideratzen dituzten proiektuetan oinarritua
- Testu-generoak, Hizkuntza arloaren eduki nagusia izatea.
- Ikaskuntza, sekuentzia didaktikoetan egituratzea.
- Hizkuntz ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain.
- Gramatikaren trataera, funtzionala eta kontestualizatua izatea.
- Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea.
- Lankidetzazko ikaskuntza indartzea

- **Ikasmaterialak**

Konpetentzien garapena bideratzeko material kurrikular egokien aukeraketa egiten saiatzen da.

- **Ebaluazioaren ikuspegia. Irizpideak**

- **Hezitzailea:** heziketa-prozesuaren muinean kokatzen dena, eta ez azken muturrean soilik.
- **Integrala:** konpetentzia komunikatiboaren osagai guztiak kontuan hartzen dituen.
- **Kontestualizatua:** hizkuntza giza ekintza jakin baten komunikazio-testuinguruan txertatuta aztertzen duena.
- **Testuala:** giza ekintza horren baitan sorturiko testua, hausnarketa-unitatetzat hartzen duena.
- **Anitza:** osagai eta egoera bakoitzeko ebaluazio-une eta -mota egokiena erabiltzen duena.
- **Prozesuala:** ikaskuntzen erregulatzaile-funtzioan oinarritutakoa.
- **Partekatua:** elkarrekintza ardatz izanik, ikasleari partaidetza eskaintzen diona.

4.3.3.2. Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena

Kanpoko horrek, esparru pedagogikoa izateaz gainera, didaktikoa ere izango du. Horrela, kanpoko eremuko jarduera guztiek komunikatzen ikastearen konpetentzia txertatuta izango dute. Helburuak:

- Ahozko elkarreragina segurtatzea eta bultzatzea
- Hezitzaile guztiak hizkuntza irakasle izatea
- Hizkuntza jarrerak lantzea eta adostea.

4.3.4. Erregistroen trataera

Ikasleek ikasi behar dute argi, jariakortasunez, modu eraginkorrean, eta egoerari dagokion erregistro egokian hitz egiten.

Hori errealitate bihur dadin, eskola-giroan irakasleak, hezitzaileak eta gainerako profesionalak izango dira hizkuntza erregistro egokiaren sustatzaile, eredu-emaile eta motibazio eragile, gela barruan zein gelaz kanpo.

Horrenbestez, Orioko Herri Ikastolaren zereginen artean lehen mailako helburua hizkuntza estandarra irakastea bada ere, horrekin batera kontuan hartuko du herriko hizketa eta bestelako aldaerak.

5. Hizkuntz Proiektuaren prestakuntzarako irizpideak

5.1 . PRESTAKUNTZARAKO ESPARRUAK ETA ARDATZ NAGUSIAK

Horretarako, lau esparru nagusi hauetan eragingo da:

- Hizkuntza prestakuntza
- Metodologia prestakuntza
- Hizkuntza jarreraren inguruko prestakuntza
- Hizkuntza Proiektua dinamizatzeko prestakuntza

5.1.1. Profesionalen prestakuntzaren ardatzak

- **Hizkuntz prestakuntza.** Profesional guztientzako abiapuntua **C1 maila** izango da **C2 maila** eskuratzeko baliabideak eta estrategiak jarriko dira

Beste hizkuntzetako irakasleak direnei eta interesaturik leudeken profesional guztiei, euren gaitasun komunikatiboa hobetzeko prestakuntza planak jarriko ditu abian.

- **Metodologiaren prestakuntza.** Ondorengo ildo nagusiak aintzat hartuta landuko dira
 - *Ahozko elkarreraginezko diskurtsoa.*
 - *Guztiak hizkuntza irakasle.*
- **Hizkuntza jarreraren inguruko prestakuntza.** Honako gai hauetaz jabetu beharko dugu:
 - Euskara eta euskal kulturaren eta bestelako hizkuntzen eta kulturen arteko bizikidetzea sustatzearen premiaz.
 - Hizkuntza eta kultur aniztasunak gizakion eta bizitzaren garapenerako duen garrantziaz.
- **Hizkuntza Proiektua dinamizatzeko prestakuntza dinamizatzailerentzako.** Landuko dituzten arloak:
 - Oinarrizko marko teorikoa
 - Egoeraren diagnostikoa eta ondorioztatzen den plan estrategikoa egiteko baliabideak
 - Ikastolako giza taldea dinamizatzeko estrategia

5.1.2. Gurasoen hizkuntza prestakuntza

Irizpide hauek aintzat hartuko dira:

- **Eskolaren testuinguruan eskainitako hizkuntza baliabideak oinarri.**
- **Oinarrizko erabiltzaile-mailari begira.**
- **Hizkuntza jarreraren inguruan.** ildo nagusi hauek kontuan hartuz:
 - Euskara ondorengoei transmisioaren ardura bere egitea.
 - Hizkuntz eta kultur aniztasuna aintzat hartzea.

5.1.3. Ikasleen hizkuntza prestakuntza

Hizkuntza behar bereziak dituzten kasuetan Ikastolaren egitekoak bi eremutara zuzenduko dira:

1. **Eskola barruko eremura.** Hizkuntza gaitasuna indartzearen lagungarri diren egitasmoak (ikastaro bereziak, mintza-saioak, autoikaskuntza-programak...) jarriko ditu martxan.
2. **Eskolaz kanpoko eremura.** Ikastolak, herriko beste eragileekin elkarlanean, hizkuntza behar bereziak dituztenentzat euskaraz burutuko diren eskolaz kanpoko jarduerak egitearen alde lan egingo du.

5.1.4. Gurasoen formaziorako hizkuntz-trataera

Orioko Herri Ikastolan gurasoei arlo edo gai ezberdinen inguruan eskainiko zaizkien formazio saioetarako honak hizkuntz irizpideak hartuko dira kontuan:

1. Formazio saioak euskaraz antolatuko dira eta gazteleraz egiteko aukera irekita utziko da.
2. Saioak antolatzeko gutxienez 8 gurasok izena eman beharko dute.
3. Gaztelerazko saiorako talde osatuko ez balitz, zikloka edo etapaka egiteko deialdi berri bat egingo da.
4. Gurasoei formaziorako gonbitea hizkuntza bakar batean egingo zaie: euskaldunei euskaraz eta erdaldunei elebietan.
5. Gaztelerazko saiorako taldea osatuz gero, euskarazko saiora etorri ezin dutenei gaztelerakoan parte hartzeko aukera eskainiko zaie.
6. Saioen ordutegiari dagokionez, etapa bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik, honela egingo dira:
 - HH-ko euskarazko eta gaztelerazko saioak asteko egun eta ordu berean egingo dira, aste beteko tartearekin.
 - LH-n bi saioak jarraian egingo dira, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.
 - DBH-n, berriz LH-koen alderantziz.

6. Hizkuntz Plangintza

Hizkuntza bakoitzak ikastolan duen funtzioa eta hartzea dituen eremuak definitu eta zehazten ditu, jarraian.

6.1. Oinarriak

6.1.1. Hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa Ikastolako eremuetan

3. taula. Komunikazio-eremuak eta hizkuntzen banaketa

EREMUAK		HIZKUNTZAK			
		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	FRANTSESA
PEDAGOGIKOA	GELA BARRUKOA	X	X	X	X
	GELAZ KANPOKOA	X			
INSTITUZIONALA	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA	X	X		
	KANPO-HARREMANAK	X	X		

6.2. Eskolatze goiztiarra eta berantiarra

6.2.1. Eskolatze goiztiarra (Haur Hezkuntzan)

ikasle guztiak 2 urteko geletan banatuko dira, eta jatorrizko hizkuntza banaketa egiterakoan irizpide nagusienetakoa hizkuntza izanik

Ikasle guztiekin curriculum berdina landuko da eta polikiago doazen ikasleek helburuak lor daitezten, irakasleek jarduera aproposak prestatuko dituzte. Hauek, Haur Hezkuntza amaieran, euskararen ezagutza eta erabiltze egokia lortzea izango da helburu.

6.2.2. Eskolatze berantiarra (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

Etapeta hauetan, Orioko Herri Ikastolan euskara jakin gabe eskolatzen diren ikasleekin modu honetan jokatu beharko da:

1.- Kasuak banan-banan aztertu beharko dira: adina, jatorrizko hizkuntza, eskolatzeko maila...

2.- Kasuak kasu, ikasle berantiar bakoitzari, beste egokitze bakoitzari buruzko erabakiak hartzen diren artean, euskara bereganatzeko plangintza egokituko zaio (Ikus Etorkinen eskolatzeko Orioko Herri Ikastolan).

6.3. Gela barruko hizkuntzak

6.3.1. Hizkuntza bakoitzaren ordu kopurua eta hasierako adina

4. taula. Hizkuntzen irakaskuntzarako ordutegia eta hasierako adina

MAILA		ADINA	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	FRANTSESA
HH 2. zikloa	1	3-4	X*			
	2	4-5	X*		2,5 ordu	
	3	5-6	X*		2,5 ordu	
LH	1	6-7	X* (5 ordu)	4 ordu	3 ordu	
	2	7-8	X* (5 ordu)	4 ordu	3 ordu	
	3	8-9	X* (4 ordu)	4,5 ordu	3,5 ordu	
	4	9-10	X* (4 ordu)	4,5 ordu	3,5 ordu	
	5	10-11	X* (4 ordu)	4 ordu	3,5 ordu	
	6	11-12	X* (4 ordu)	4 ordu	3,5 ordu	
DBH	1	12-13	3 ordu	3 ordu	3 ordu	2 ordu*
	2	13-14	3 ordu	3 ordu	3 ordu	2 ordu*
	3	14-15	3 ordu	3 ordu	6 ordu (3 + 3 Gizarte)	2 ordu*
	4	15-16	3 ordu	3 ordu	6 ordu (3 + 3 Gizarte)	2 ordu*
HIZKUNTZA BAKOITZAK DUEN DENBORA: %			Euskara(z): 76,8	Gaztelania: 10,2	Ingelesa: 10,8	Frantsesa: 2,2

(X*) Globalizatua. (*) Aukerazko gai bezala.

Aparteko eskola ordu guztiak euskaraz. Baina DBHn gaztelaniazko baliabide didaktikoak erabili behar dira, irakasleriak egoki deritzenean, hizkuntza horren indartze aldera.

6.3.2. Hizkuntza maila neurtzeko kanpo frogak

Orioko Herri Ikastolak, betidanik, bere ikasleen hizkuntza maila hobetzeko helburua izanik, euren hizkuntza maila neurtze aldera kanpo ebaluazio ezberdinak egin izan ditu eta egiten jarraituko du. Ebaluazio horien helburuak honakoak dira: lehenik, ikasleen hizkuntza maila neurtu; eta, bigarrenik, irakaste-ikaste prozesuetan suerta daitezkeen hutsuneak detektatu eta zuzentze neurriak hartu.

6.4. Gelaz kanpoko eremuen hizkuntzen banaketa

5. taula. Gelaz kanpoko eremuan hizkuntzen banaketa

GELAZ KANPOKOA	HIZKUNTZAK			
	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	FRANTSESA
JOLASALDIAK	X		X	
JANTOKIA	X			
GARRAIOA	X			
SARRERA-IRTEERAK	X		X	
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (ikastola eragile denean)	X	X		
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (ikastola eragile ez denean)	X	X		
IRTEERAK, EGONALDIAK ETA KANPALDIAK	X			
JAI-OSPAKIZUNAK	X	X	X	

6.5. Eremu instituzionalean hizkuntzen banaketa

6. taula. Eremu instituzionalean hizkuntzen banaketa

EREMU		HIZKUNTZAK			
INSTITUZIONALA		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	FRANTSESA
E R A K E T	GOBERNU-ADMINISTRATIO ETA FUNTZIONAMENDU ORGANOEEN HIZKUNTZA	X			
	LANGILEEN HIZKUNTZA PROFILA	X	X	X	X

A E T A B A R R N E K O M U N I K A Z I O A	HIZKUNTZEN TRATAERARI BURUZKO ERABAKIAK BILTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK	X	X		
	LANGILEEN HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA	X	X	X	X
	EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIOA	X	X		
	IKT EUSKARRIEN HIZKUNTZA TRATAERA	X	X	X	X
	IKASTOLAKO ESPAZIOEN HIZKUNTZA TRATAERA	X			
F A M I L I A	FAMILIA BARRUKO HIZKUNTZA	X	X		
	IKASTOLAREN ETA GURASOEN ARTEKO HARREMANAK	X	X		
	GURASOEN HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA	X			
K A N P O H A R R E M A N A K	BESTE IKASTETXEEKIKO HARREMANAK	X	X		
	GIZARTE-ELKARTEEEKIKO HARREMANAK	X	X		
	UDAL ETA HERRI ERAKUNDEEEKIKO HARREMANAK	X			
	HORNITZAILEEEKIKO HARREMANAK	X	X		

6.5.1. Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntza erabilera.

- **Gobernu-organok**

Batzar Nagusia. Batzar Nagusiak euskaraz burutuko dira. Bat-bateko itzulpen zerbitzua eskainiko da, eta galde-eskaera garaian galderak gaztelaniaz aritzeko eskubidea izango dute. Eta pantailaz edo paperean emandako informazioa, gaztelaniaz eskuratzeko aukera ere izango dute.

Aktak euskaraz jasoko dira eta sozioren batek eskatuz gero bakarrik itzuliko dira.

Artezkaritza Kontseilua. Bileretan euskara izango da hizkuntza lehenetsia eta lehendakari izateko ezinbesteko izango da hizkuntza hau menderatzea.

Artezkaritza Kontseiluaren azpibatzerdeak. Bileretan eta aktak euskaraz egingo dira.

- **Zuzendaritza Taldea, Klaustroa, Etapa-Ziklo-Maila-Mintegi bilerak**

Orioko Herri Ikastolako funtzionamendu-organo guztien hizkuntza euskara izango da.

6.5.2. Langileen hizkuntza profila

- **Zuzendaria, irakasleak eta kirol koordinatzailea**: Euskarazko C1 maila (EGA edo baliokidea). Atzerriko hizkuntzen irakasleak ere euskarazko titulazioaren parekoren jabe izango dira.
- **Administrazio langileak**: Irakasleriak bezala, C1 maila eduki beharko du.
- **Atezain-mantenu langileak, jangelako hezitzaileak**: Euskaraz jarioasunez hitz egiteko gai izango da. Ez da hizkuntza lorpen-mailarik eskatuko.
- **Garbitasuneko langileak**: Euskaraz jarioasunez hitz egiteko gai izatea baloratuko bada ere, ikasleekin harremanik ez dutenez, ez da hori izango lehenetsiko den irizpidea langile berriak kontratatzerakoan, euren egoera ekonomikoa baizik.
- **Autobusetako gidariak**: Euskara hitz egiteko gai direnak eskatuko dira, baina ez da irizpide hau lehenetsiko zerbitzu hori kontratatzekeo garaian, egiten duen eskaintza ekonomikoa eta zerbitzu kalitatea baizik.
- **Eskolaz kanpoko ekintzetako hezitzaileak**: Euskaraz jarioasunez egitea kontuan hartuko bada ere, guraso-hezitzaileen kasuan salbuespena egingen da, gurasoek ikastolaren funtzionamenduan parte hartzea lehenetsiko baita.

6.5.5. Langileen hizkuntza prestakuntza

Lau esparrutan bideratuko da: erabilpenerako prestakuntza, metodologia, hizkuntza jarrera eta Hizkuntza Proiektua dinamizatzekeo.

6.5.5. Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntza trataera

Guztia euskaraz idatziko da beti. Urteko balantze ekonomikoak Ohiko Batzar Nagusirako gaztelerara ere itzuliko egingo dira beti, norbaitek eskatuko balu mementuan eskura dezan.

6.5.6. IKT euskarrien hizkuntza trataera

Orioko Herri Ikastolako ekonomia eta administraziorako IKT euskarriak, ahal diren neurrian, euskara hutsean izango dira.

Ikasle eta irakasleek erabiltzen duten software librea, ahal den neurrian, euskaraz erabiltzea bultzatuko da; baina, ezin bestekoa denean, beste hizkuntzetan erabiliko da.

Software estandarren kasuan, ia ezinezkoa denez euskarri horiek euskaraz eskuratzea, gaztelaniaz erabiliko dira eta, beharrezko balitz, beste hizkuntzetako softwarea ere erabiliko da.

6.5.7. Ikastolako espazioen hizkuntza trataera

- **Errotulazioa:** euskara hutsean.
- **Informazio-guneak:** euskara izango da nagusi. Zenbait kasuetan, informazioaren egokitasuna dela eta, elebidun edo gazteleraz onartuko da.
- **Korridoreak:** ikasleek egindako lan guztien erakusleku direnez, horietan erabili den hizkuntzan jarriko dira ikusgai; beraz, paisaia eleanitza izango da, hau da, ikastolan lantzen diren hizkuntza guztien islada izango dira.

6.5.8. Familia barruko hizkuntza erabilera

Familien tipologia ezagutzeko, ikasleak matrikulatzen diren garaian euren familietako hizkuntza datuak jasoko dira. Bestalde, ikasturte hasiera guztietan datuak eguneratuko dira.

6.5.9. Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak

- **Gelako bilerak** (tutore – familiak).- Gelako bilera guztiak euskaraz nahiz gatelaniaz egingo dira, baina ordutegi ezberdinetan, eta pantailaz nahiz paperean emateko informazioa bi hizkuntzetan prestatuko dira.

Bilera bakarria egiten den kasuetan, azalpenak bi hizkuntzetan emango dira, baina euskara lehenetsiko da; horietan pantailaz emango den informazioaren aurkezpena guraso erdaldunei gazteleraz paperean emango zaie.

- **Bakarkako bilerak** (tutore – familia).- Familiaren hizkuntzan egingo dira.
- **Ikasleen ebaluazio txostenak.**- Ikaslea matrikulatzen den garaian familiari buruz jasotako hizkuntz datuen araberrako ebaluazio txostenak jasoko dituzte. Txosten horien ekoizpenerako irizpideak:

Haur Hezkuntzako eta **Lehen Hezkuntzan** ebaluazio txostenak euskaraz ala guztiz elebidunak izango dira (formatoa, itemak, kalifikazioak eta oharra). Txosten elebidunetan ikasleei zuzendutako oharrak euskara hutsean idatziko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskara hutsean emango dira. Familia erdaldunen kasuan, ikasleentzako oharrak euskara hutsean idatziko dira; gurasoei zuzendutakoak, aldiz gazteleraz idatziko dira.

- **Ohar buletinak, ikastolako web orria eta “Pergola” aldizkaria**

Ohar buletinak eta beste ohar guztiak euskara hutsean egingo dira familia euskaldunentzat; aldiz, erdaldunentzat, elebidunak prestatuko dira.

Ikastolako web orriaren ataria euskaraz ekoiztuko da (berriak, oharrak...), baina zenbait atal gazteleraz ikusteko aukera eskainiko da.

“Pergola” aldizkaria euskara hutsean argitaratuko da.

- **Gurasoen hizkuntza prestakuntza**

Prestakuntzak hiru ardatz hauek izango ditu kontuan: eskolaren testuinguruan eskainitako hizkuntza baliabideak, oinarrizko erabiltzaile-mailari zuzendutakoak, eta hizkuntza jarreraren ingurukoak (ikus 5. atala).

6.5.10. Beste ikastetxeekiko harremanak.- Ahal den neurrian euskara.

6.5.11. Gizarte-elkarteekiko harremanak.- Ahozko harremanak, ahal den neurrian, euskaraz izango ditu. Idatzizkoan euskararen presentzia beti ziurtatuko du.

6.5.12. Udal eta beste herri-erakundeekiko harremanak.- Ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz izango ditu.

6.5.13. Hornitzaileekiko harremanak.- Ahal den neurrian eta bere esku dagoen neurrian, euskaraz burutuko ditu ahoz nahiz idatziz.

6.6. Hizkuntza erregistroen trataera

Orioko Herri Ikastolak hizkuntza erregistro formalen eta ez-formalen trataerari buruzko hausnarketa egitearen premiaz jabetuta egon arren, oraindik ez dio gaiari heldu; Lan horri ekiteko garaian honako hiru ardatz hauek izango ditu kontuan:

1. Erregistro formala eta ez-formala non eta noiz erabili.
2. Euskalkaia non eta noiz erabili eta nola eragin horren erabilpen zuzenean.
3. Hitanoa non eta noiz erabili eta nola eragin horren erabilpen zuzenean.